

Euskal AEko industria-sektoreko enplegua %3,0 hazi zen 2001. urtean


Industria-inbertsioek %27ko tasa nominaleko hazkundera izan zuten, aurreko urteetakoak baino askoz ere altuagoa.

Aurreko azken lau ekitaldietan (1997-2000) Euskal AEko industria-sektoreak urteko hazkunde-tasa altuak lortu zituen eta 2001ean dezelerazioaren lehengo sintomak agertu zituen.

Industriaren balio erantsiaren hazkundera %36,4koa izan zen 1997-2000 aldi guztirako, hau da, urteko %9koa, eta 2001ean %3,6ko bilakaera positiboa izan zuen, baina aurreko urteetako aparteko hazkundeak baino nahikoa txikiagoa.

Aipatutako lau urteko aldian, ia 40.000 enplegu sortu ziren, hau da, %20ko igoera lau urtean. 2001ean 7.000 industria-enplegu sortu ziren, hau da, sektoreko okupazioaren hazkundeak urteko %3ko tasa lortu zuen.

BEGFK 1997-2001. Balio nominalak



Honakoak dira Euskal AEko 2001eko industria-datuaren ezaugarriarik aipagarrienetako batzuk:

- Industria-sektorearen balio erantsiak %3,6ko hazkunde nominala lortu zuen 2001ean; tasa positiboa, baina aurreko urteetakoak baino txikiagoa.

- Balio erantsiaren hazkunderik handienak, honako sektoreetan izan ziren, beste batzuen artean: bulegoko makineria eta ekipamendu informatikoa (%94,5), ez-metalezko meak (%76,1), ez-metalezko bestelakoak (%27,3), paperaren industriak (%24,0), arrain-kontserbak (%16,1), bestelako garraio-materiala (%14,9) eta energia elektrikoa (%12,2).
- Industria-enplegua %3 hazi zen eta 7.000 industria-lanpostu baino gehiago sortu ziren 2001ean.
- Enplegua sortzeko gaitasun handieneko industria-sektoreen artean honakoak ditugu: material elektrikoa (%7,5), plastikozko gaiak (%6,6), bestelako garraio-materiala (%6,3) eta ingeniariaritz mekanikoa (%5,8).
- Itxurazko industria produktibitatea ia egonkor mantendu zen 2001ean, balio erantsia %3,6 hazi baitzen balio nominaletan, eta enplegua %3.
- 2001eko ekitaldian industria-sektoreak egindako inbertsioek dinamismo handia agertu zuten, %27 hazi baitziren, aurreko urteetako tasen oso gainetik (1999an %13,7 eta 2000n %8,5).
- Amortizazioak, aldiz, egonkortu egin ziren aurreko urteko mailetan, eta ondorioz, inbertsio garbiak 1.200 eurora iritsi ziren.
- Soberakin gordina apur bat jaitsi zen (%-0,6) azken aldian lehenengo aldiz, eta pertsonal-kostuak %7,3 hazi ziren.
- Zergen eta cash-flow-aren aurretiko emaitzak jaitsi egin ziren (%-5,1 eta %-3,3, hurrenez hurren).

2001eko industria-bilakaera lurraldeka konparatuz gero, Gipuzkoan izan zen sektoreko hazkunderik handiena (%5,2); Araba erdiko postuan kokatu zen (%3,8), eta azkenik Bizkaia (%2,1) Euskal AEko batez bestekoaren azpitik geratu zen.

Eraikuntza-sektorea %16,6 nominala hazi zen 2001ean.

Eraikuntza-sektoreak urteko %16,6ko gehikuntza nominala lortu zuen, 1999ko eta 2000ko tasak gaindituz (%13,1 eta %9,9koak, hurrenez hurren).

Eraikuntza-sektoreak sortutako balio erantsiaren hazkunde garrantzitsu hori, gainera, sektoreko landunen bilakaeran ere islatu zen, %9,6 gehitu baitziren, eta sektoreko guztizko okupazioa 75.000 langiletik gorakoa izan baitzen. Beraz, 2001ean 6.000 enplegutik gora sortu ziren, ia Industrian beste (7.000).

Industriako aldagai nagusien bilakaera.
Euskal AE. Uneko prezioak

	2000	2001	Δ %
Establezimenduen kopurua	15.076	15.061	-0,1
Landun-kopurua	236.055	243.198	3,0
Balio Erantsi Gordina faktore-kostutan	12.303.989	12.748.266	3,6
Ustiapen Soberakin Gordina	5.715.210	5.678.879	-0,6
Egindako Inbertsioak	2.495.764	3.168.510	27,0
Amortizazioak	1.904.114	1.898.949	-0,3
Negozio-kopurua	40.478.983	41.481.465	2,5
Bestelako sarrerak	1.852.933	2.169.126	17,1
Ustiapen-kontsumoak	22.581.608	22.878.676	1,3
Kanpoko zerbitzuak	5.381.266	5.801.879	7,8
Pertsonal-gastuak	6.588.779	7.069.387	7,3
Bestelako gastuak	1.934.066	2.168.882	12,1
Emaizak zergak ordaindu aurretik	3.304.841	3.136.674	-5,1
Cash Flow-a	5.208.955	5.035.623	-3,3

Iturria: EUSTAT
Eraikuntzako aldagai nagusien bilakaera.
Euskal AE. Uneko prezioak

	2000	2001	Δ %
Establezimenduen kopurua	21.163	21.942	3,7
Landun-kopurua	69.155	75.790	9,6
Balio Erantsi Gordina faktore-kostutan	2.506.184	2.923.177	16,6
Ustiapen Soberakin Gordina	934.679	1.002.472	7,3
Egindako Inbertsioak	212.934	197.289	-7,3
Amortizazioak	112.620	135.329	20,2
Negozio-kopurua	8.379.700	9.476.311	13,1
Bestelako sarrerak	344.877	604.515	75,3
Ustiapen-kontsumoak	5.155.691	5.929.877	15,0
Kanpoko zerbitzuak	870.760	1.015.234	16,6
Pertsonal-gastuak	1.571.505	1.920.705	22,2
Bestelako gastuak	203.768	247.234	21,3
Emaizak zergak ordaindu aurretik	656.658	671.544	2,3
Cash Flow-a	769.278	806.873	4,9

Iturria: EUSTAT
Argibide gehiagorako:
Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Iosune Azula Tlf:+34-945-01 75 09 Faxa+34-945-01 75 01
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es